

1. Zergatik hezkidetza?

Luixa Reizabal Arruabarrena, Maialen Eldua Azkarate eta Idoia Areizaga Llorente

XXI. mendearen hasieran hurrek generoak estereotipatutako uste, funtzio, rol, jokabide eta beste errepikatzen jarraitzen dute. Izan ere, familian, eskolan, kalean, komunikabideetan eta antzekoetan gizon eta emakumeen ikusmolde estereotipatuak (eta, gero ikusiko dugun moduan, sexistak) jaso eta barneratzen dituzte. Hori aldatu ezean, haur horiek helduaroan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza, diskriminazioa, bortizkeria matxista eta antzekoak ontzat emateko edo/eta eragiteko arriskua dago.

Zorionez, bada arrisku hori saihesteko tresnarik: *hezkidetza* delakoa. Esku-hartze prozesu hezitzailea da hezkidetza eta hauxe du helburu: generoen arteko ezberdintasunak desagerrarazi eta gizonen eta emakumeen eskubide, aukera, tratua, betebeharrak, itxaropenak, baliabideak, karguak, espazioak, denbora, eskaera eta antzeko berdintasunak izan ditzaten lortzea (Gonzalez eta Lomas, 2002 eta Simon, 2003tik egokitua); eta hori izango da, hain zuzen ere, esku artean duzun gidan jorratuko den gaia.

Kapitulu honetan gida idaztera bultzatu gaituzten arazoak aztertuko dira lehenik. Hezkidetzarekin zerikusia duten kontzeptu nagusien esanahia argituko da ondoren. Hirugarrenik, kapituluaz azaldutakoa barneratzeko lagungarri izan daitezkeen ariketa praktikoa proposatuko dira eta, azkenik, kapituluaz agertzen diren aipuen erreferentzia bibliografikoak jasoko dira.

1.1. GIDA IDAZTERA BULTZATU GAITUZTEN ARRAZOIAK

Askok genero-ezberdintasunak, matxismoa eta antzekoak gaindituta daudela uste duten arren, errealitate gordinak erakusten digu uste hori ustela dela. Gida idazten hasi ginen unean, adibidez, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (*European Union Agency for Fundamental Rights-FRA*, 2014) egindako txostena plazaratu zen, zeinaren arabera, Europar Batasuneko emakumeen heren batek jasan baitu indarkeria matxista. Euskal Herriari dagokionez, ia egunero izaten dugu eraso matxistaren baten berri. Gainera, emakumeen lan-baldintzak eta soldadak gizonenak baino askoz ere kaskarragoak dira; soldata eta lan-baldintza kaskarrago horien ondorioz, emakumeek jasotzen duten erretiro-pentsioa ere txikiagoa izan ohi da. Halaber, sexismoa nabarmena da komunikabide eta iragarkietan, bai eta kale zein tabernetan egon ohi diren karteletan; familia eta eskola askotan sexismoa transmititzen jarraitzen da...



1.1. irudia. Sexismoa nabarmena da kale eta tabernetan dauden txartel askotan (argazkia: L. Reizabal).

Emakumeek egun pairatzen duten marjinazioa, baina, ez da azken hamarkadetan sortutako arazoa. Izan ere, historian zehar egon dira emakumeak baztertuta. Jendarte patriarkaletan emakumeak adin txikiko pertsonatzat hartu izan dira beti; hau da, beren kabuz erabakiak hartzerik ez duten pertsonatzat, naturak ez omen dielako horretarako gaitasunik eman. Horregatik, emakumeak babes behar duten pertsonak direla uste izan da. Hala, garai batean ez zitzaien ikasketarik egiten uzten, ez eta gaur egun lanpostu gisa ezagutzen dugun ardurarik izaten ere. Historian adibidez, beti defendatu izan da emakumeen zeregina etxeko lanak egitea zela, hau da, etxea eta arropak garbitzea, janaria prestatzea, etxeko haur eta zaharrak zaintzea, jostea... Eta jarduera horiek gehienetan etxean egiten zirenez, emakumeak historikoki eremu pribatuan jardun direla esaten da. Halaber, halako lanak egiteagatik inoiz soldatarik izan ez dutenez, gure jendartean nagusi den pentsaera kapitalistaren arabera, emakumeek historian «ez dute lanik egin».

Hori hala izanik, zenbait gauza azaleratu nahi genituzke. Batetik, etxeko lanez arduratu izan diren emakumeek lan itzela egiten dutela jendartea mantentzen eta, ondorioz, lan hori aintzat hartu beharko litzatekeela, haien ekarpena Historian txertatuz, kasu. Bestalde, Del Val Valdivieso-k (2008) dioen moduan, etxeko lanak egin behar izateak ez duela esan nahi emakumeek soilik bizitza pribatuaren eremuan jarduten zirenik. Izan ere, etxeko lan ugari etxetik at egin izan ziren. Duela urte gutxi arte, adibidez, garbitokietan egiten zen arroparen garbiketa, non beste hainbat emakume zeuden; batzuk beren familiaren arropa garbitzen eta beste batzuk, berriz, diruaren truke, besteena garbitzen. Gainera, dokumentu ugaritan ikusi ahal izan da emakume askok etxetik kanpoko lantegietan —zerrategietan, okindegietan, ospitaleetan eta antzekoetan— nahiz landan —beraien lurretan edota besteenetan, jornalari— egin izan dutela lan. Halaber, egun badakigu askotan ezkutatu egin direla emakumeek egindako lanak, sistema patriarkalaren legitimazioa bermatzeko. Esaterako, moja eta bestelako emakume ugariren lanak edo/eta ekarpenak gizoni egotzi zaizkiela aurkitu da. Beraz, aurkakoa sinetsarazi nahi diguten arren, emakumeak ez dira beti eremu pribatuan etxeko eta zainketako lanak egiten aritu.

Historian bazterketa eta zapalkuntza jasan behar izan duten arren, beti egon dira jendarte patriarkalaren aurka egin eta haien arrastoa utzi duten emakumeak. Ez

dugu horietako asko ezagutzen. Izan ere, Historian ez jasotzeaz gainera, asko isilduta edo zigortuta izan ziren haien ideientatik. Hala ere, badugu batzuen berri. Besteak beste, Parisen XII. mendean bizi izan zen Eloisa —ez da abizenik jasotzen haren historiari buruzko argitalpenetan— izeneko andrearena (Guizot eta Guizot, 1907). Hamazazpi urteko emakume horrek latina, teologia, filosofia, grekoa eta hebreera zekizkien arren, haren osaba Fulbertok —Pariseko Katedraleko kalonjeak— Pedro Abelardo —Pariseko katedralean lan egiten zuen teologo eta filosofo ospetsua— kontratatu zuen Eloisari filosofiari buruzko formazioa eman ziezaion. Hala, Eloisa eta Pedro maitale egin ziren. Fulbertok Eloisa aristokrata batekin ezkondu nahi zuenez, bikoteak ihes egin zuen Pedoren arrebak Britainian zuen etxera, non ezkondu eta Pedro Astrolabio izeneko semea izan zuten. Horren berri izan zuenean, Fulbertok morroi batzuk hartu, Pedoren etxera joan eta bertan Pedro zikiratu zuen. Aurki harrapatu zituzten Fulberto eta haren morroiak, eta haien klase sozialaren arabera zigorra jaso zuten. Hain zuzen ere, morroiak zikiratu eta, gainera,itsu utzi zituzten. Fulbertori, berriz, jabegoak konfiskatu eta erbesteratu egin zuten. Pedro monje eta Eloisa ere moja egin zen. Pedrok Jainkoaren zigortzat hartu zuen gertaturikoa eta damutu egin zen, baina Eloisak ez zuen horrelakorik egin, haren ustez, gertatutakoa ez baitzen bidezkoa izan. Ondorioz, matxinatu eta amorruez beteriko gutunak idatzi zituen, zeinetan argi ikus baitaiteke, batetik, oso barneratuta zituela garaiko sistema patriarkalaren ideia batzuk. Izan ere, bere burua senarrarena baino gutxiagotzat eta senarrari gertaturiko gauza txar guztien erruduntzat zuen. Bestetik, bazituela ere sistema horren aurkako ideiak. Esaterako, ezkontzaren aurka zegoen. Pedoren maitale izan nahi zuela adierazi zuen gutunetan, baina ez emazte, ezkontzaren atzean, maitasuna barik, ideia materialak daudelako. Uste hori matxinotzat har daiteke garai hartako emakume batentzat, gobernuko lege eta lege kristauen arabera gizonezkoek ziotena onartzea baitzen emakumeen zeregina, eta ezkontzaren bidez bakarrik lor zitekeelako heldutasuna, betiere senarraren mendean.

XX. mendera jauzi eginez, Espainiako estatuan 1975. urtera arte —hots, Franco diktadorea hil arte— emakumeek ezin zuten kontraturik sinatu, *Codigo Civil* delakoak emakumeak haur txikien parekotzat hartzen baitzituen. Diktadorea hil ostean, *Demokrazia* deritzon sistemaren baitan, zenbait lege-aldaketa egin dira, eta egun, lege aldetik behintzat, emakumeak gizonen pareko dira. Frantziako estatuan, berriz, Lehenengo eta Bigarren Mundu Gerren ondoren gertatu zen aldaketa, gizonak borrokan zeuden bitartean emakumeek egin zituztelako haiek egin ohi zituzten lanak. Beraz, gizonak gerratik itzuli eta emakumeak berriro etxean sartu behar izan zutenean, konturatu ziren gai zirela nahi zutena egiteko, eta eskubidea zutela hori egiteko. Hala, mugimendu feminista eta iraultzailea borrokan hasi zen emakumeen eskubideen alde eta egungo egoerara iristea lortu zuen.

Beraz, egun Espainiako eta Frantziako estatuen legeen arabera, emakumeak gizonezkoen pareko dira, nahiz eta arestian aipatu den moduan, errealitatean oraindik bigarren mailako pertsonak izan. Izan ere, amaiezina da gizon eta emakumeen

arteko ezberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela adierazten duten gertakarien zerrenda. Horregatik erabaki genuen, hain zuzen ere, gida hau idaztea, esku hartu ezean, ez baitira desagertuko sexismoa, androzentrismoa, misoginia eta antzekoak, ez eta haiek ekartzen dituzten genero-ezberdintasunak, indarkeria matxista zein bestelako ondorio latzak ere.

Ez gara gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzearen esku-hartzearen beharra ikusten duten bakarrak. Izan ere, asko dira azken urteetan hezkidetzaz idatzitako lanak. Gehienetan, baina, lan horiek eskolan jarri dute arreta, aldaketak sortzeko eremu paregabea den aldetik (Eusko Jaurlaritza, 2013), hezkidetzaz sustatzeko testuinguru nagusitzat hartzen baita. Hala ere, hezkidetzaz ezin da eskola-eremura mugatu. Izan ere, generoaren ikusmolde estereotipatua eta sexista nagusiki sozializazio-eragileen bitartez bereganatzen da eta jai dugu eskolan hezkidetzaz sustatu eta familian, komunikabideetan eta, oro har, jendartearen sexismoa transmititzen jarraitzen bada. Hala, uste dugu hezkidetzak politika integrala behar duela, hau da, eskolan, familian, komunikabideetan, lan-eremuan, lagunartean eta bestelakoetan gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatuko duten legedia, praktika sozialak, usteak, ohiturak, arauak eta antzekoak bultzatuko dituen.

Horregatik guztiagatik, beraz, plazaratu dugu esku artean duzun gida. Hezkidetzaren inguruko hausnarketa bultzatu, genero-ezberdintasunak sustatzen dituzten hezkuntza-praktikak identifikatu eta hezkidetzaren helburuekin bat datozen praktika hezitzaileak erabiltzeko baliabideak eskaintzea izan da gure helburua. Irakurlearen lana da aztertzea helburua lortu dugun.

1.2. KONTZEPTUAK ARGITZEN

Aipatu bezala, gaiarekin zerikusia duten kontzeptu nagusien esanahia argituko dugu atal honetan. Hain zuzen ere, sexua eta generoa; genero-rolak eta -estereotipoak; sexismoa; matxismoa, patriarkatua, misoginia eta androzentrismoa; indarkeria matxista; feminismoa eta, azkenik, hezkidetzaz zer diren azalduko dugu.

1.2.1. Sexua eta generoa

Ezaugarri biologikoa da sexua, espezie jakin bateko emeak eta arrak bereiztea ahalbidetzen duena. Espermatzoide batek obulu bat ernaltzen duenean, 23 kromosoma-bikotek osatutako zelula sortzean da. Azken kromosoma-bikotea da, hain zuzen ere, sexua zehazten duena. Izan ere, «sexu-kromosomaz» osatuta dago. Sexu-kromosomak, haien forma dela-eta (bata bestea baino askoz ere txikiagoa da), X edo Y batez irudikatzen dira. Hala, 23. kromosoma-bikotea XX bada, banakoa emea izango da eta arra, berriz, XY bada (ikus 1.2. irudia). Denborarekin, zelula bakar hori ugaltu egingo da milioika zelulez osatutako gizaki bilakatu arte. Eta zelula horiek guztiak 23 kromosoma-bikotez osatuta egongo dira, azkena XX edo XY izanik. Kromosoma-bikote horren arabera, pertsonak zenbait ezaugarri biologiko

(besteak beste, testosterona, estrogenu eta progesterona hormona maila jakin batzuk), anatomiko (gorpuzkera eta sexu-organoak, kasu) eta fisiologiko (esaterako, sexu-organoen funtzionamendua) izango ditu (Lera, 2002).

Garai batean, familia batean semeak izan nahi eta alabak izaten zirenean, amei egozten zitzairen haurren sexua zehaztearen ardura, haiek gutxietsiz. Hala, ez zen harritzekoa izaten horrelakoak edo antzekoak entzutea: «*Emakume horrek emeak besterik ez daki egiten*». Egun jakin badakigu aita dela seme-alaben sexua zehazten duena. Izan ere, beste zelulak ez bezala, ugalketa-zelulak (hau da, esperma eta obuluak) kromosoma bakarreko serieez osatuta daude. Aipatu bezala, obulu bat ernalduta gertatzen denean 23 kromosoma-parez osatutako zelula sortzen da. Horien erdia amak jartzen ditu eta beste erdia, berriz, aitak. Sexu-kromosomen kasuan, amak beti X kromosoma jartzen du eta aitak X edo Y jar ditzake. Beraz, aita izaten da etorkizunean haurra izango denaren sexua zehazten duena (Lera, 2002).

INFORME CARIOTIPO

LABORATORIO DE GENÉTICA
HOSPITAL DONOSTIA

| | |
|--|----------------------------|
| Nombre: | Fecha de recepción: |
| Nº de muestra: | Nº de historia: |
| Tipo de muestra: Líquido amniótico | |
| Indicación: Edad Materna | |
| Semana de gestación ecográfica: 15 | |
| Centro: Hospital Donostia | |
| Médico solicitante: | |
| Servicio: Ginecología | |
| Alfa fetoproteína: 21534 UI/ml | |
| Los niveles de AFP son normales en función de las semanas de gestación | |
| CARIOTIPO: 46, XY | |
| Metafasas analizadas: 15 | |
| Diagnóstico: Varon cromosómicamente normal | |

1.2. irudia. Kariotipo delakoa, hau da, hogeita hiru kromosoma-bikoteen irudikapena. Azken kromosoma-bikotea XY izanik, arrarena da irudikoa.

Generoa, aldiz, kultura edo jendarte batean une historiko jakin batean sexu bakoitzari egozten zaizkion ezaugarri psikosozialei dagokie; hau da, maskulinitasunari eta femeninitasunari esleitzen zaizkien arau, jokabide, itxaropen, jarduera, ezaugarri, rol eta besteri. Elementu horiei guztiei «genero-agindu» esaten zaie eta eraikuntza sozial dinamikoaren ondorio dira. Hala, kulturaren eta une historikoaren arabekoak izateaz gainera, talde etnikoaren, klase sozialaren, zein pertsonen horietan duten kokapenaren arabera aldatzen dira (Martinez, 1999 in Reizabal 2007).

Jendartearen bazterketa edo/eta jazarpena ez pairatzeko bete behar diren arau inplizituak dira genero-aginduak. Esaterako, gure jendartean dagoen genero-aginduetako bat heteronormatibotasuna da. Horren arabera, gizon eta emakumeek «beren sexuari dagozkion gauzak» egin eta heterosexuak izan behar dute. Heteronormatibotasuna bete ezean, pertsonak zigorra, bazterketa edo/eta jazarpena paira ditzakete. Izan ere, aurrerapenak gertatzen ari diren arren, oraindik nagusi dira homofobia —homosexualitatea eta homosexualak arbuiatzeko jarrera—, transfobia —transexualak arbuiatzeko jarrera— eta antzekoak. Hala, generoa da —eta ez sexua— pertsonen ezaugarri ez-biologikoak, jokabidea, rolak eta antzekoak zehazten dituenak. Haurrek txikitatik bereganatzen dituzte genero-aginduak, hirugarren kapituluaren deskribatuko den genero-sozializazio prozesuaren bitartez.

1.2.2. Genero-rolak eta -estereotipoak

Genero-aginduen zati dira *genero-rolak*, hau da, kultura eta une historiko bakoitzean gizon eta emakumei esleitzen zaizkien funtzioak, jokabideak, balioak eta jarrerak, genero-sozializazioaren bitartez bereganatzen direnak (Martinez, 1999 in Reizabal, 2007). Hala, gure jendartean tradizionalki ekoizpen-rola esleitu zaie gizonezkoiei, eta emakumezkoiei, berriz, ugalketa/zainketarena. Banaketa horrek emakumeen diskriminazioa ekarri du, zeren ekoizpen-rola vs ugalketa/zainketa-rola hartzeak ondorioak izaten baititu. Besteak beste, egiten den lana sozialki aintzat hartzea, nolabaiteko boterea izatea, soldata jasotzea, bizi publikoa egitea eta zainketetatik, sentimenduetatik eta antzekoetatik at gelditzea ekartzen ditu ekoizpen-rolak eta sozialki oso baloratua dago. Ugalketa/zainketa-rola betetzeagatik, berriz, ez da inongo errekonozimendu sozialik ez eta soldatarik jasotzen ere, ez da inongo botererik aitortzen, ez da bizi sozialik izaten... eta, ondorioz, gutxietsi egiten da.

Gizonezkoek ekoizpen-rola betetzeko gaitasunak eskuratu ohi dituzte, baina ez ugalketa/zainketarako beharrezko direnak. Emakumezkoek, berriz, ugalketa/zainketa-rola betetzeko gaitasunak eskuratu ohi dituzte, baina ez ekoizpenerako beharrezko direnak. Hala, gizon-emakumeen arteko osagarritasunean oinarritzen da genero-rolen banaketa tradizionala. Banaketa horren ondorioz sortzen dira, hain zuzen ere, genero-berdintasunak eta emakumeak bigarren mailako izatera pasatzen dira.

Egun genero-rolak aldatzen ari dira. Izan ere, emakumezko gehienek etxetik kanpo egiten dute lan, eta ekoizpenerako beharrezko diren gaitasunak eskuratu dituzte. Arazoa da aldaketa horrek askotan ez duela ekarri etxeko eta zainketa-lanen banaketa eta emakumezkoek orain, etxetik kanpo lan egiteaz gainera, etxeko lanez eta zainketaz ere arduratu behar izaten dute, gizonezkoek ez dutelako eremu horretan dagokien ardura hartzen. Hala, Simonen (2009) arabera, lanaren banaketa-modu berria garatu da. Horretan, emakumei ugalketa-rola esleitu zaie. Rol horrek haziera, ardura handiko zainketa-lanak eta etxean egon behar izatea ekartzeaz gainera, gizonezkoen aldean kaskarragoa den lan ordaindua egin behar izatea ekarri

die emakume gehienei. Gizonezko gehienek, berriz, ekoizpen-rola hartu dute, zeinak lan-errendimendu handia, lantokian denbora gehiago egon behar izatea eta zainketan batzuk —laburrak eta eskaera maila txikikoak— ekarri dizkien. Hala, esan daiteke oraingo genero-rolen banaketa ere desberdintasunean oinarritzen dela, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak eta emakumearen diskriminazioa ekartzen ditu eta.

Gizonei eta emakumeei buruz kultura edo jendarte batean dauden iritzi edo uste hedatuak, berriz, *genero-estereotipoak* esaten zaie. Sexu bakoitzari egotzen zaizkion nortasun-ezaugarriek, rolek, motibazioek, ezaugarri fisikoak, gaitasun kognitiboak, jokabideak eta bestek osatzen dituzte genero-estereotipoak eta horietan bi sexuen artean egon daitezkeen benetako ezberdintasunak puztu egiten dira. Hori dela-eta, genero-rolen banaketa justifikatzeko balio izaten dute (Martinez, 1999 in Reizabal, 2007).

| | Nortasun- Ezaugarriak | Rolak | Ezaugarri fisikoak | Gaitasun kognitiboak |
|----------------------------------|---|-------------------------------------|-----------------------------|--------------------------------------|
| Estereotipo femeninoa | Adeitsua. | Arropaz arduratzea. | Ahots suabea. | Adierazpena. |
| | Ahula. | | Barregaria. | Artistikotasuna. |
| | Beldurtia. | Emozio- sostenguarien iturri. | Dotorezia. | Ezagutza urrikoa. |
| | Beroa. | Erosketa egitea. | Edertasuna. | Hautemate- gaitasuna. |
| | Besteekiko dedikazioa. | Etxeaz arduratzea. | Ikusgarria. | Hitzeko gaitasunak. |
| | Besteen sentimenduen ezagueradun. | Modaz interesatzea. | Polita. | Intuitzioa. |
| | Buru-kontrolik gabekoa. | Sukaldaria. | Sexy/a. | Irrazionaltasuna. |
| | Emozionalki ezegonkorra. | Txutxu- mutxuzalea. | Txikia. | Irudimena. |
| | Irrazionala. | Umeez/zaharrez arduratzea. | | Sortzailetasuna. |
| | Koherentziarik gabekoa. | | | Ukimena. |
| | Lan-ambizio gutsukoa. | | | |
| | Subjektiboa. | | | |
| | Hunkibera. | | | |
| | Kaskarina. | | | |
| | Pasiboa. | | | |
| | Menpekoa. | | | |
| | Ondo hezia. | | | |
| | Otzana. | | | |
| | Ulerkorra. | | | |
| | Xamura. | | | |
| Estereotipo maskulina | Aktiboa. | Brikolajea. | Atletikoa. | Analitikoa. |
| | Arrazionala. | Diru- hornitzailea. | Beltzarana. | Arazoak bideratzeko gaitasuna. |
| | Ausarta. | Familia-burua. | Bizkar zabala. | Arrazoibide matematikoa. |
| | Buru-segurtasuna. | Kirolzalea. | Gogorra. | Gaitasun kuantitatiboak. |
| | Deliberatua. | Kontrol ekonomikoa. | Gorputz handikoa. | Pentsaera abstraktua. |
| | Dinamikoa. | Liderra. | Indar eta kemen fisikoa. | Zehatza. |
| | Eraginkorra. | Sexu-iniziatiba. | Muskularra. | Zenbaki- gaitasunak. |
| | Independentea. | | | Zientzietarako gaitasuna. |
| | Kontrolatua. | | | |
| | Emozionalki egonkorra. | | | |
| | Lehiakorra. | | | |
| | Nagusitasunerako joeraduna. | | | |
| | Ni sendoa. | | | |
| | Oldarkorra. | | | |
| | Objektiboa. | | | |
| Psikologikoki indartsua. | | | | |
| Saiatua. | | | | |
| Tolesgabea. | | | | |

1.3. taula. Gure jendartean gizonei eta emakumeei buruz dauden estereotipo batzuk.

Arestian aipatu dugun moduan, aldaketa nabarmenak gertatu dira genero-roletan; ez, ordea, genero-estereotipoetan, aldaketarekiko erresistentzia handia dute eta. Izan ere, beste garai batzuetakoak izaten jarraitzen dute. Hain zuzen ere, 1.3. taulan agertzen dira gure jendaratean gizon eta emakumeei buruz dauden estereotipo batzuk (Kite, 2001 in Barberá 2004tik eta Alacanteko Feminarioa, 1987tik egokitua).

Ikus daitekeen moduan, sozialki balioesten diren ezaugarriak, rolak eta gaitasun intelektualak esleitzen zaizkie gizonari; ez, ordea, emakumeei. Horren ondorioz, ez dira berdinak izaten emakumeek eta gizonak dituzten aukerak eta eskubideak. Eta, zoritxarrez, emakumeek gizonak baino gutxiago balio dutela barneratzen dute. Izan ere, genero-estereotipoak pertsonen uste-sistemaren zati izan ohi dira, haien jokabidea, itxaropenak, jarrerak eta antzekoak zehaztuz. Emakumezkoen kasuan, parekidetasuna oztokatzen duten barneko mugak eraikitzen dituzte. Esaterako, genero-estereotipoen arabera, emakumezkoek «lan-anbizio gutxiago dute gizonazkoen baino» eta «etxeaz eta seme-alabez arduratu behar dute». Hala, estereotipo horiek barneratu eta askotan lan-anbizio gutxiago izan eta familiarekin zerikusia duten lan gehiago hartzen dituzte emakumeek eta horrela lan-munduan baztertuta egotea sustatzen dute. Barneko muga horiei, kanpokoak gehitu behar zaizkie. Besteak beste, etxeko eta zainketa-lanak emakumezkoen dagozkiela dioen inposizio soziala. Hala, barneko eta kanpoko aldagaien arteko elkarrekintzaren ondorioz sortzen dira gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak (Ashmore, 1990). Horregatik, garrantzitsua da genero-estereotipoak aldatzea, pertsonen identitate aberatsak eta ez-estereotipatuak gara ditzaten.

1.2.3. Sexismoa

Esan bezala, eraikuntza soziala da generoa eta haren esanahia aldatu egiten da, besteak beste, kulturaren eta une historikoaren arabera. Hala ere, bada aldatzen ez den alderdirik: izan ere, kasu guztietan sozialki gehiago baloratzen dira ezaugarriak eta rol batzuk. Bereizketa hori nagusiki sexismo, matxismo eta androzentrismoaren ondorioa da.

Pertsonari bere sexuaren arabera abantailak esleitzeko edo diskriminatzeko erabiltzen diren ohiturei dagokie *sexismoa* eta, ondorioz, genero-diskriminazioaren sinonimotzat hartu ohi da. Gure jendarate patriarkala izanik —geroxeago ikusiko dugun moduan, gizonazkoen nagusitasunean oinarritzen den antolakuntza soziala—, gizonazkoen esleitzen zaizkie abantailak eta emakumezkoak, berriz, diskriminatu egiten dira. Hala, sexua oinarri hartuta, gizon-emakumeekiko tratuan, eskaintzen zaizkien aukeretan, dituzten baldintzetan, aplikatzen zaizkien arau moraletan, sariatzen, zigorretan, beharretan eta beste hainbat alorretan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak eta hierarkizazioa sortzen dira sexismoaren ondorioz. Gure jendaratean dagoen bidegabekeriarik hedatuena izanda, populazioak gehien onartzen duen bidegabekeria dugu sexismoa (Simon, 2009), baina, zoritxarrez, ez da diskriminazio-iturri bakarra. Izan ere, asko dira *diskriminazio bikoitza* (eta,

batzuetan, *anizkuna*) pairatzen duten emakumeak: batetik, arraza, jatorri, fisiko, adin-talde edo maila sozial jakin bat dutelako diskriminatzen dituzte eta, bestetik, talde horien barruan emakume izateagatik egoten dira baztertura. Diskriminazio guztiak desagertzea ezinbestekoa da bakea lortu nahi bada (ikus 2. kapitulua).

Glick eta Fiske-ren (1996) *Sexismo Anibalentearen Teoriaren* arabera, egun sexismoa modu anibalentean azaltzen da, emakumeenganako antipatia haienganako sentimendu positiboekin konbinatuz. Hala, honako bi alde hauek osatutako eraikuntza soziala da sexismoa: etsaitasunezko sexismoa eta onginahikoa. Lehena ideologia sexista klasikoarekin bat letorke. Izan ere, paternalismo menderatzaileak, genero-bereizketak eta etsaitasun heterosexualak osatuko lukete. Paternalismo menderatzailearen arabera, emakumezkoak gizonak baino ahulagoak dira eta, ondorioz, gizonezkoen mende egon behar dute. Honako ideia honi dagokio, ostera, genero-bereizketa: emakumezkoek ez dute erakunde sozialak gobernatzeko gaitasunik eta, ondorioz, etxearen eta familiaren eremuan gelditu behar dute. Azkenik, emakumezkoen ustezko botere sexualari dagokio etsaitasun heterosexuala. Botere horren ondorioz, emakumeak arriskutsuak izateaz gainera, gizonak manipulatzeko gaitasuna dute. Hala gizonezkoen boterea, genero-rol tradizionalak eta emakumea sexu-objektu gisa erabiltzea justifikatzen dira etsaitasunezko sexismoaren bitartez.

Onginahiko sexismoa, berriz, gizonek genero-rol tradizionalak betetzen dituzten emakumeekiko dituzten ustezko jarrera positiboek dagokie. Hain zuzen ere, paternalismo babesleari, emakumeen idealizazioari eta haiekin sexu-harremanak izateko nahiari. Onginahiko sexismoa mendekotasuna justifikatzeko modu atseginagoa da, eta gizonek emakumeekiko duten mendekotasuna onartzen du. Halaber, amodiozko harremanen ikusmolde erromantikoagoa planteatzen du, emakumeak emazte eta ama gisa idealizatzen dituen, betiere genero-estereotipo tradizionalak bete eta otzantasuna, pasibotasuna eta antzeko ezaugarriak badituzte. Sexismo mota horren ondorioz, gizonek babes-sentimenduak garatzen dituzte eta emakumeak babesten dituztela uste dute. Izan ere, haserretu egiten dira emakumeek beren babesari uko egiten badiote.

Sexismoaren bi osagai buruz teoria horrek egiten duen proposamena eta, bereziki, onginahiko osagaiaren identifikazioa, oso garrantzitsua da, batez ere onginahiko jokabide sexistak jasaten dituzten emakumeak agian ez direlako jokabide horien izaera sexistaz ohartzen eta, ondorioz, jokabide positibotzat har ditzaketelako. Hala, zailagoa da onginahiko sexismoa antzematea eta erauztea. Simonen (2009) arabera, beste pertsonak —bereziki, haur txikiak— zaintzeko emakumeei egotzi ohi zaien gaitasuna da onginahiko sexismoaren adibide argia. Izan ere, horren bitartez, emakumezkoek sinetsarazten zaie beren zein besteen haurrak zaintzea dela duten funtzio nagusia eta, gainera, haien zoriontasuna eta errealizazioa lortzeko, ezinbestekoa dela funtzio hori betetzea. Gizonek, berriz, nahikoa dute emakumeren bat horretaz konbentzitzearekin, hark beraienak diren zainketa-lanak egin ditzan. Eta hori amarru matxista sotila besterik ez da.

1.2.4. *Matxismoa, patriarkatua, misoginia eta androzentrismoa*


Matxismoa sexismoaren isla izango litzateke. Izan ere, «sexu maskulinoa femeninoa baino gorago jartzen duen uste, jarrera, praktika sozial eta jokabide multzoari dagokio» (Harluxet, 1995: 2.225). Matxismoaren arabera, gizonak nagusi lirateke emakumeen aldean eta, ondorioz, emakumeak gizonen mendeko.

Matxismoak aldarrikatzen duen ustezko nagusitasun horretan oinarritutako sistema litzateke, berriz, *patriarkatua*. Izan ere, gizonen nagusitasunean oinarritzen den antolaketa soziala da, zeinaren ondorioz, arlo guztietako (familia, politika, ekonomia edo erlijioa, kasu) botere-postu garrantzitsu gehienak —guztiak ez esatearren— gizonezkoen eskuetan baitaude. Zenbait forma hartu ditu patriarkatuak historian. Hala, Alicia Puleo-k (2005) bi mota bereizten ditu: hertsadura-patriarkatuak eta baimenekoak. Lehenek gizon-emakumeek bete beharreko rolei buruzko ikusmolde hertsia mantentzen dituzte eta, horiek bete ezean, heriotzarainoko ondorioak paira daitezke. Puleok berak jartzen du patriarkatu mota horien adibiderik: Afganistaneko mujahidinak, zeinek beren sexuari egotzitako rolak betetzen ez dituzten emakumeak gogorki zigortzen dituzten. Baimeneko patriarkatuetan, berriz, emakumeak dira beraiei esleitutako genero-aginduak betetzen saiatzen direnak. Izan ere, presio latza jasaten dute, besteak beste, komunikabideetan ematen diren irudi eta mezuen bitartez (ikus 3. kapitulua). Kasu horretan ere, Puleok aipatzen du adibiderik. Hain zuzen ere, herrialde garatuak, Euskal Herria kasu.

Askotan matxismoarekin nahasten den arren, bestelako esanahia du *misoginiak*, emakumezkoen aurkako ezinikusi edo gorrototzat har daitekeena. Asko dira emakumeei buruz esandakoarengatik misoginotzat hartu izan diren pertsonak. Batzuk aski ezagunak. Hildakoen artean, Frederick Nietzsche, Oscar Wilde edo Sigmund Freud aipa daitezke adibide gisa (Clack, 1999). Irakurleari utziko diogu bizirik daudenak gogora ekartzeko lana.

Azkenik, errealitatearen eta harreman sozialen ikusmolde lerratuari dagokio *androzentrismoa*, emakumeak alde batera utzita, nagusi diren gizonak eta haien ikusmoldea gauza guztien ardatz eta erreferentzia nagusitzat hartzen dituen (Simon, 2010). Gizonen ikuspegia unibertsaltzat hartzen da, hau da, gizateria osoarena bailitzan. Hala, gizonezkoek egin dutena gizateria osoari esleitzen zaio eta gizateria osoak egindakoa, berriz, gizonezkoei bakarrik. Emakumezkoak, haien ikuspegia eta haien mundua ezabatu egiten dira androzentrismoaren ondorioz eta ez dira haien ekarpenak aintzat hartzen. Egunero topa ditzakegu androzentrismoaren islak. Esaterako, mintzaira mailan, maskulinoa generiko gisa erabiltzen denean. Dikotomikoa da androzentrismoan oinarritzen den pentsaera, hau da, kontrajarriak dauden bikoteetara murrizten du errealitatea. Esaterako, maskulinoa eta femeninoa; arrazoia eta sentimenduak; lan ordaindua eta lan ordaindu gabea; arlo publikoa eta arlo domestikoa; heterosexualitatea eta homosexualitatea... Gainera, dikotomia horretan alde bat nagusitu ohi da eta bestea, berriz, baztertu. Aurreko adibideei jarraituz, maskulinoa, arrazoia, lan ordaindua, arlo publikoa eta heterosexualitatea.

Hala, errealitatearen konplexutasuna bi mundura murrizten da, hura mugatuz (Monasterio, Gonzalez eta García, 2011).



1.4. irudia. Sigmund Freud misoginotzat hartu izan da (marrazkia: Kepa Etxebarria).

1.2.5. Indarkeria matxista

Asko dira emakumeen aurkako indarkeria izendatzeko erabiltzen diren terminoak. Besteak beste, indarkeria matxista, genero-indarkeria, etxeko indarkeria, emakumeen aurkako indarkeria, familia-indarkeria eta familia barneko indarkeria. Horietatik guztietatik, lehena erabiliko dugu gida honetan, indarkeria hori eragin edo ontzat ematen dutenek ideologia matxistak aldeztu duen gizonezkoek emakumeekiko duten ustezko nagusitasuna eta, ondorioz, emakumezkoek haiekiko duten mendekotasuna erabiltzen baitute haren zilegitasuna defendatzeko.

Nazio Batuen (1993 in Reizabal eta Lizaso, 2011: 171) definizioaren arabera, honako honi dagokio indarkeria matxista:

Generoan oinarritutako indarkeriazko ekintza, ondorio posible edo errealizat kalte fisiko, sexuala edo psikologikoa duena. Halaber, eremu publikoan zein pribatuan ekintza horiek egitearekin mehatxu egitea, hertsatzea zein arbitrarioki askatasuna kentzea.

Definizio hori egokia iruditu arren, osatu gabe dagoela uste dugu, kalte fisiko, sexual edo psikologikoez gainera, beste ondorio latz batzuk izan baititzake indarkeria matxistak. Esaterako, ekonomikoak, sozialak eta espiritualak edo ideologikoak (ikus 1.2.5.1. atala).

Gehienetan, bikote —edo bikote ohien— harremanen eremuan gizonak eragindako tratu txar fisiko edo psikologikoekin erlazionatzen da indarkeria matxista, baina ikusmolde hori murrizta dela uste dugu. Batetik, indarkeria matxistak ez duelako zertan bikote edo bikote ohien arteko harremanetan gertatu. Esaterako, sanferminetako txupinazoaren unean Iruñeko Udaletxeko plazan gertatzen diren sexu-erasoak indarkeria matxistaren adibideak dira, eta ez dira bikote-harremanen eremuan gertatzen. Edo Txinan eta Indian fetuak emeak direlako egiten diren abortuak zein jaioberrien hilketak (Simon, 2009); edo familiaren barnean neskatoek intzestua, pederastia eta antzekoak pairatzen dituztenean; edo lan-arloan gertatzen diren sexu-eraso edo -jazarpenak; edozein tokitan gertatzen diren sexu-eraso edo bortxaketak; ablazioa; Mexikoko Ciudad Juarez hirian gertatzen diren nesken hilketak...

Bestetik, indarkeria matxista ez duelako zertan beti gizon —edo gizon talde— batek eragin. Izan ere, egun gure jendarrean indarrean dagoen sistema patriarkalak eta kulturaren zenbait alderdik indarkeria matxista eragiten dute. Azkenik, arestian esan dugun moduan, kalte fisiko, sexual eta psikologikoez gainera, beste kalte batzuk ekar ditzakeelako (ikus 1.2.5.1. atala). Horregatik guztiagatik, uste dugu indarkeria matxistaren ikusmoldeak zabala izan behar duela.

Atal honetan planteamendu hori argitzen saiatuko gara, horretarako, indarkeria matxista motak aztertuz. Horren ostean, eraso matxistak bikote-harremanetan gertatzen direneko prozesua, eraso horiek izan ditzaketen ondorio psikologikoak eta biktimen eta erasotzaileen ezaugarriak aztertuko dira.

1.2.5.1. Indarkeria matxista motak

Indarkeria matxista motak ulertzeko, ezinbestekoa da indarkeria-mailarekin zerikusia duen bereizketa egitea. Hala, *ikusezinezko indarkeria* eta *muturrekoa* bereizi behar dira (Simon, 2009). Sotila da lehena eta tranpa matxista askoren bitartez agertzen da, *mikromatxismoen* bitartez, alegia (Bonino, 1995 in Simon, 2009). Besteak beste, emakumeak zaintzeko duen gaitasunaz aprobetxatzea, intimitaterik eza sortzea, emakumeak ezeztatzea, paternalismoa eta emozio-manipulazioa dira mikromatxismoen adibideak, askotan inkontzienteki egiten direnak (Bonino, z.g.). Emakumeen askatasuna murriztea, hura menpe hartzea, haren erabakitzeko gaitasuna deuseztatzea eta antzeko helburuak dituen teknika multzo sistematikoa da ikusezinezko indarkeria matxista, eta horren bitartez zera lortzen da: emakumeek nahi ez dutena egitea; nahi dutena ez egitea; edo emakumeek pentsatzea gizonak erabakitzen dutena dela egokia. Indarkeria horren ondorioz, emakumeak lehertuta, emozionalki indarrrik gabe, autoestimua urrituta dutela, ondoezik eta beste senti daitezke, beraz, kaltegarria da. Hura erabiltzen duten gizonentzat, berriz, oso bestelakoa da, nagusiki beraien rol dominatzailea erabili eta munduan agintzeko, irabazteko eta antzekoak egiteko daudela pentsatzeko joera areagotzen baitu.

Muturreko indarkeria matxista, berriz, ez da sotila eta hainbat modutan eragin daiteke. Hori dela-eta, asko dira indarkeria matxista motak sailkatzen saiatu diren erakundeak. Europako Kontseilua da horietako bat, zeinak honako mota hauek bereizi baititu (Europako Kontseilua, 1995 in Reizabal eta Lizaso, 2011tik egokitua):

- *Fisikoa*: bultzakada, kolpe, erredura, itotze, ebaketa eta antzeko eraso fisikoei dagokie indarkeria fisikoa.
- *Sexuala*: emakumezkoaren borondatearen aurka egiten diren sexu-jarduerei zein harremani dagokie indarkeria sexuala, eta hura islatzen duten jokabideak dira, besteak beste, biktima bortxatzea, ukitzea, prostituzioan zein pornografian jardun dadin behartzea eta hitz lizunak esatea.
- *Psikologikoa*: botere-posizio batetik eragiten den indarkeriazko jokabideari deritzo indarkeria psikologikoa. Biktima psikologikoki mintzea, gutxiestea, haren autoestimua suntsitzea eta bere buruan duen konfiantza desagerraraztea dira indarkeria mota honen helburu nagusiak. Jokabide askoren bitartez eragin daiteke indarkeria psikologikoa. Besteak beste, biktimari tratu apalgarria emanez, garrasi eginez, laidozko hitzak esanez, hura gutxietsiz, mehatxatuz eta umiliatuz.
- *Ekonomikoa*: biktima baliabide ekonomikoen kontroletik at uzteari dagokio indarkeria ekonomikoa eta biktimak jabegoak eta/edo mantenua galtzen ditu horren ondorioz. Izan ere, biktima baliabide ekonomikorik gabe uztea da indarkeria ekonomikoa erabiltzen dutenen helburua. Hala, ekonomikoki gizonaren menpe gelditzen da eta hura bihurtzen da jaun eta jabe. Indarkeria mota horren isla lirateke ondasunak salaraztea edo suntsitzea, kreditu-txartela kentzea, kontu-korrontetik izena kentzea, ekonomian parte hartzea eragozte, lan egiten ez uztea eta antzeko jokabideak.
- *Soziala*: besteen aurrean psikologikoki gaizki tratatzeari; harreman sozialak kontrolatu nahiz debekatzeari; jarduera sozialak egitea debekatzeari edo egitera behatzeari eta antzekoei dagokie indarkeria soziala. Besteak beste, honako jokabide hauetan islatzen da: biktima besteen aurrean iraintzea; hark dituen harremanak eta jasotzen dituen eskutitzak zein telefono-dei eta -mezuak kontrolatzea; lan egitea, ikastea, lagunekin egotea eta antzeko jarduera sozialak debekatzea edo horietakoren bat egitera behatzea; biktimaren aurrean beste emakume batekin lardaskan ibiltzea; telefonoaren bitartez biktimak zer egiten duen, non eta norekin dagoen eta beste etengabe kontrolatzea...
- *Ideologiko-espirituala*: bi jokabidetan isla daiteke indarkeria ideologiko-espirituala. Batetik, indarkeria hori erabiltzen dutenek beren kulturarekin, ideologiarekin zein erlijioarekin zerikusia duten uste-sistemak onartzera behartu dezakete biktima. Bestetik, gai horien inguruan biktimek dituzten usteak suntsitzen saia daitezke, barregarri uztearen zein zigorraren bitartez.



1.5. irudia. Eskutitzak zein telefono-dei eta -mezuak kontrolatzea indarkeria sozialaren adibideak dira (argazkia: L. Reizabal).

Indarkeria mota horiek guztiak Galtung-en *indarkeria zuzenaren* barnean koka daitezke (ikus 2. kapitulua), egile —pertsona zein talde— batek eragiten ditu eta. Baina, Galtungek berak dioen moduan, indarkeria zuzenaz gainera, badira beste bi indarkeria mota. Hain zuzen ere, egiturazkoa eta kulturala. Generoari dagokionez, honako esanahi hau lukete bi indarkeria mota horiek:

- *Egiturazko indarkeria*: emakumezkoen oinarrizko eskubideak murrizten dituzten muga ikusezin eta ukiezinei dagokie egiturazko indarkeria. Hala, ez du egile batek eragiten, sistema ekonomiko-politiko-sozialak baizik. Adibide gisa, gure jendartearen indarrean dagoen sistema patriarkala jar daiteke, gizon-emakumeen arteko berdintasuna zapuzten duten botere-harremanetan oinarritzen dena.
- *Indarkeria kulturala edo sinbolikoa*: emakumezkoen aurkako edozein indarkeria mota (zuzena zein egiturazkoa) justifikatzeko edo legitimatzeko erabil daitezkeen kulturaren alderdiei dagokie indarkeria kulturala; hain zuzen ere, usteei, balioei eta, oro har, ezagutza sozialei. Halaber, uste, balio eta ezagutza sozial horiek transmititzen dituzten mezu, sinu, irudi eta antzekoak erabiltzeari. Hala, mintzairaren erabilera sexista eta iragarki, abesti, atsoitz, txiste, bideo-jolas, aldizkari, telebista-saio, ipuin eta antzeko asko (ikus 3. kapitulua) indarkeria mota honen elementutzat har daitezke.

Aipatu bezala, egiturazko indarkeria eta kulturala ez dira gizon batek eragiten dituen eraso puntualak, sistema sozio-politiko-ekonomikoaren eta kulturaren zati baizik, beraz, indarkeria mota horiek desagerrarazteko ezinbestekoa litzateke sistemaren eta kulturaren alderdi horiek ezabatzea.

1.2.5.2. Eraso matxistak bikote-harremanetan gertatzen direneko prozesua

Zuzeneko indarkeriarekin harremana duten eraso matxistak bikote-harremanaren eremuan gertatzen dira askotan. Halakoetan, erasoak ez dira bat-bateko gertakariak, honako prozesu zikliko honen emaitza baizik (Reizabal eta Lizaso, 2011; Simon, 2009):

- *Tentsio-pilaketa*: erasotzaileek etsakeria adierazten dute, baina oraindik muturrekoa izan gabe. Aro horretan ohikoak dira irainak, oihuak, kontrolik gabeko mugimenduak, biraoak, mehatxuak, protestak eta antzekoak. Hala, honako hau lortzen dute erasotzaileek: emakumeak errudun sentitzea, beldurra sentitzea, barkamena eskatzea, makurtzea, mutu gelditzea, edozer promes egitea, emozioen kontrola galtzea, negar egitea... Horregatik, zenbait autorek (esaterako, Simon, 2009:182) uste dute emakumeen jokabide horiek beste aro baten adierazle direla: «*sumisioaren eta gelditasunaren aroa*» delakoarenak, alegia. Erasotzaileek uste dute beren jokabidea zilegi dela eta areagotu egiten dituzte erasoak, jeloskortasuna, jabego-sentimenduak eta antzekoak, hurrengo aroa iritsi arte.
- *Erasoaldia*: aurreko aroan sortu duten tentsioaren ondorioz, erasotzaileek kontrola galdu eta biktimizeko jokabide oldarkorra eta kaltegarria erabiltzen dute. Hala, bortizkeria fisiko, psikologiko, sexual, ekonomiko, espiritual zein sozialarekin zerikusia duten jokabide oldarkor gogorrek gertatzen dira; muturrekoena, biktima akabatzea.
- *Damu faltsua* edo *eztei-bidaia*: erasotzaileek damua adierazten dute. Barkamena eskatzen diete biktimizei; zin egiten diete ez dela berriz gertatuko eta etorkizunean zoriontsu izango direla; afektuzko seinaleak izaten dituzte; haiekin bizitzerik ez dutela esaten diete; opariak ere egin diezazkiekete. Horren guztiaren ondorioz, biktimizek harremana eta erasotzailea idealizatu egiten dituzte eta sinetsi ez ezik, barkatu ere egiten diete.

Hiru fase horiek pasatu ostean, berriz hasten da zikloa. Denborarekin, gero eta laburragoa da eta erasoaldiak gero eta gehiagotan gertatzeaz gainera, gogorragoak izaten dira. Gainera, biktimizek gero eta baliabide psikologiko gutxiago izaten dituzte egoerari aurre egiteko. Beraz, zenbat eta gehiago iraun, orduan eta aukera gehiago daude tratu txarrek dakartzaten ondorio psikologikoak kroniko bihurtzeko. Eta zein dira ondorio psikologiko horiek? Hurrengo atalean aztertuko direnak.

1.2.5.3. Zuzeneko indarkeria matxistaren ondorio psikologikoak

Kalte fisikoa ez ezik, zuzeneko indarkeria matxistak hainbat ondorio psikologiko ekartzen ditu. Ondorio horiek indarkeriazko jokabidearen ostean mantentzen dira eta askotan laguntza psikologiko profesionala behar izaten da horiek gainditzeko. Atal honetan ohikoenak aztertuko dira. Hain zuzen ere, beldurra eta herstura; depresioa, autoestimua txikia eta erru-sentimendua eta, azkenik, nahaste psikosomatikoak.

- *Beldurra eta herstura*: tratu txarrak maiz gertatzen direnez, haiek pairatzen dituzten emakumezkoek etengabe pairatzen dituzte herstura eta beldurra, beren segurtasunarengatik ez ezik, baita seme-alaben segurtasunarengatik ere.
- *Depresioa, autoestimu txikia eta erru-sentimendua*: askotan emakumeek uste dute beren jokabidearekin bikotekidearen alderdi positiboak indartu eta haren jarrera alda dezaketela, baina beren saiakerek porrot egiten dutela eta egoerari aurre egiteko gai ez direla ikusirik, askotan beren autoestimua txikitu eta erru-sentimendua eta depresioa paira ditzakete.
- *Nahaste psikosomatikoak*: biktimek pairatzen duten ondoeza psikologikoaren ondorioz, zenbait nahaste edo oinaze fisiko ager dakizkieke. Besteak beste, migrainak, heste-arazoak, nekea, nahaste ginekologikoak, jateko gogoia galtzea eta sexu-desioa galtzea.

1.2.5.4. Zuzeneko indarkeria matxistaren biktimen eta erasotzaileen ezaugarriak

Atal honetan saiatuko gara azaltzen zuzeneko indarkeria matxistako egoeretan murgilduta egon ohi diren bi aldeek ezaugarriak: biktimenak eta erasotzaileenak, alegia. Biktimei dagokienez, ezin da profil jakin bati buruz hitz egin, edozein emakumek jasan baitezake indarkeria matxista. Hala ere, badira biktimek komun dituzten ezaugarriak. Hain zuzen ere, aurreko atalean azaldutako ondorio psikologikoak.

Biktimekin gertatzen den moduan, ezin da erasotzaileen profil jakin batez hitz egin, edozein gizonak eragin baitezake indarkeria matxista. Hala ere, bada erasotzaileek komun duten ezaugarriak. Batetik, balio matxistak dituzten gizonak dira; oso barneratuta dute gizonaren eredu jakin bat eta horri jarraitzen diote. Honako hauek dira eredu horren ezaugarri nagusiak: indarra, harrokeria, oldarkortasuna, arrakasta, arrazionaltasuna, inguruan duten guztiaren kontrola, sentimendurik ez adieraztea, hornitzaile ekonomikoa izatea eta emakumezkoekiko nagusitasuna dutela pentsatzea. Izan ere, gizon horiek uste dute bikotekideak beren jabegoa direla eta beren menpe eta zerbitzura daudela. Gizontasuna garrantzitsua dela uste dute eta gizonetzko orok garrantzia hori agerian utzi behar duela, emakumezkoa menderatuz. Bestalde, beren buruaren irudi negatiboa dute eta autoestimu txikikoak izan ohi dira; menpeko pertsonak dira eta beren burua biktimatzat hartu eta botererik ez dutela sentitzen dute. Izan ere, indarkeria erabiltzen dute etxean botere-sentsazioa lortzeko eta etxetik kanpo galdu duten kontrola berreskuratzeko. Gainera, oso jeloskorak eta posesiboak izaten dira eta, askotan, arazoak izaten dituzte alkoholarekin zein beste droga batzuekin. Hori ez ezik, beste gizonak baino gaitasun sozial urriagoak dituzte ere, sentimenduak adierazteko zailtasunak izaten dituzte eta komunikatzeko erabiltzen duten bide nagusia eraso da. Azkenik, gehienetan ez dute etxetik kanpo arazo psikopatologikorik izaten eta haien jokabidea «normala» izaten da, baina etxean oso bestelakoak dira. «Kalean uso, etxean otso» esaera zaharrak ederki asko adierazten du gizonetzko horien izaera bikoitza.

1.2.6. *Feminismoa*

Matxismoa, sexismoa, androzentrismoa, misoginia eta antzekoak desagerrarazi eta gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzea helburu duen mugimendu sozial, filosofiko eta politiko gisa defini daiteke feminismoa. Emakumeekin erlazionatzen den arren, emakume guztiak ez dira feministak eta badira feministak diren gizon asko.



1.6. irudia. Gizonen eta emakumeen eskubide eta aukera berdinak izan ditzaten borrokatzen du feminismoak (argazkia: L. Reizabal).

Oraindik bada feminismoaren bertsio femeninoa dela uste duenik, hau da, feministek sexu femeninoa maskulinoa baino gorago jarri eta gizonekiko emakumezkoen nagusitasuna aldarrikatzen dutela, baina hori ez da horrela, Egia da beren burua feministatzat duten bakan batzuek horren aldeko direla, baina horiek ez lirateke feministak izango. Euskaraz, zein frantsesez oraingoz ez dago pertsona horiek izendatzeko terminorik. Bai, ordea, gaztelaniaz. Izan ere, aditu batzuek (Martinez Ten eta Alberdi, 1988 eta Simon, 2009 kasu) «hembrista» neologismoa proposatu dute eta zenbait euskaldun «henbrista» terminoa erabiltzen hasi dira pertsona horietaz hitz egiteko. Henbristek emakumeen nagusitasuna aldarrikatzeaz gainera, gizonak eta beraiek bezalakoak ez diren emakumeak gutxiesten dituzte, kaikuak balira bezala. Hala, misoginotzat har daitezke ere (Simon, 2009).

Gizon-emakume feministen borrokari esker gertatu dira gure jendartean genero-berdintasunerantz egin diren urratsak, beraz, gida honen bitartez gure esker ona helarazi nahi diegu horretan jardun edo jarduten diren guztiei. Eta, noski, lerro hauetatik dei egiten dugu guztiok gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunaren alde lan egin dezagun.

Hezkuntzari dagokionez, hezkidetzak dugu feminismoak gizonen eta emakumeen eskubide eta aukera berdina izan ditzaten lortzeko proposatzen duen tresna, eta hori izango da hurrengo atalean aztertuko dena.

1.2.7. Hezkidetzak

Askotan neskek eta mutilek elkarrekin ikasten duten egoera gisa definitzen den arren, gizonen eta emakumeen, beraien joera sexuala edozein izanda ere, eskubide, aukera, tratua, betebeharrak, itxaropenak, baliabideak, karguak, espazioak, denbora, eskaera eta antzeko berdina izan ditzaten lortzea helburu duen esku-hartze prozesu hezitzailea da hezkidetzak, generoen arteko berdintasunetik eta genero-diskriminaziorik ezetik abiatzen dena (Gonzalez eta Lomas, 2002 eta Simon, 2003tik egokitua). Hala, justizian eta berdintasunean oinarritutako jendartea lortzea bilatzen du hezkidetzak. Definizio hori kontuan izanik, honako ezaugarri hauek dituen hezkuntza-estiloa litzateke hezkidetzak (Simon, 2010etik egokitua):

1. Kontuan hartzen duena genero-rolak familia, eskola eta bestelako sozializazio-eragileen bitartez bereganatu eta, ohituraren poderioz, normalizat hartzen direla.
2. Neskak eta emakumeak etengabe modu egokian, justuan eta berdintasuna aintzat hartuz aipatzen dituenak.
3. Harremanetan, familian, lanean eta bestelako testuinguruetan gizonen eta emakumeen askotariko ereduak daudela onartu eta aintzat hartzen dituenak, bereziki estereotipurik ez daudenak.
4. Gizakien askotariko gaitasunak eta funtzioak normalizatzen dituzten adibideak jarri eta eskatzen dituenak, haiek sexuarekin erlaziorik ez dutela azpimarratuz.
5. Emakumezkoek nonahi eta noiznahi izan duten eta egun duten presentzia eta egin/egiten duten lana azpimarratzen duena.
6. Eskolan «femeninoak» ei diren gaitasunak aintzat hartzen dituen bikaintasun-eredu berriak garatzen dituenak. Hau da, eskolan neska-mutilengan beren burua zein beste pertsonak zaintzeko eta sostengu ekonomikoa lortzeko beharrezko diren gaitasunak sustatzen dituenak.
7. Genero-aurreiritziak eta -estereotipoak alde batera utzita, neska-mutilek beren gaitasun eta interesen arabera aukera dezaten sustatzen duena.
8. Neska-mutilei generoarekin zerikusia duten arriskuak azaltzen dizkiena (indarkeria, mendekotasunak, istripuak, sexu-arazoak, maitasunarekin zerikusia duten arriskuak eta antzekoak).
9. Matxismo, misoginia, sexismo eta antzekoekiko jarrera ezkorra sustatzen duena.

10. Pertsonen artean berdintasunezko harreman adiskidetsuak sustatzen dituenak, bazterketa, gehiegizko lehia eta antzekoak ekidinez.
11. Elkartasun- eta begirune-ezagutzak, praktikak eta jarrerak balioesten dituenak.

Laburbilduz, emakume eta gizonen arteko aukera-, tratu-, eskubide-, betebehar-, eskaera-, itxaropen-, ardura-, kargu-, baliabide-, denbora- eta espazio-berdintasuna lortzeko bidea dugu hezkidetza. Eta hezkidetzan hezteko ezinbestekoa da familia, eskola, komunikabideak eta, oro har, sozializazio-eragile guztiek hezkidetza-pedagogiak garatzea, honako elementu hauetan oinarritu behar dutenak (Simon, 2003):

- a. Pertsona-eredu berritzaile, misto eta ez-estereotipatueta: izan ere, pertsona-eredu berriak proposatu behar dituzte, zeinek betebehar eta trebetasun bereziak izango baitituzte haien nahien, interesen, gaitasunen edo baldintzen arabera, eta ez sexuaren arabera.
- b. Berdintasunean oinarritutako itxaropen sozialetan, hau da, ez dadila sexua izan itxaropen sozialak zehazten dituenak. Eta norbere zoriona, egonkortasuna edo arrakasta ez daitezela izan neska edo mutil izateak zehaztutako itxaropen sozialak betetzearen ala ez betetzearen arabera.
- c. Tratu justuan: gizon eta emakumeen portaerak epaitzeko irizpide berdinak erabili eta portaera egin duen pertsonaren sexuaren arabera epaitzen ez duena. Berdin baloratu portaerak, egin dituenaren sexuari erreparatu gabe. Emakumeak orekaz, justiziaz eta zehaztasunez izendatzen dituenak.
- d. Berdintasunean oinarritutako ardura-banaketan: berdintasunean oinarritu ardurak, espazioa eta denbora banatzeko garaian; banaketa adostua eta aldagarria izan dadila, betiere pertsonen motibazioen arabera, eta ez sexuaren arabera.
- e. Irakaskuntzan eta giza ezagutzetan: emakumeek egindako ekarpenak kontuan hartzen dituenak. Hala, emakumezkoak eta haien ekarpenak kontuan hartuko dituen ezagutza berria eraiki behar da. Hizkuntzaren erabilera ez sexista egin behar da. Irakasten diren balioek, gaitasunek eta emoziozko jarrerak ezaugarri «femeninoak» izan behar dituzte hezkuntza osoa izan dadin, hau da, gizon eta emakumeek alor guztietan autoaskitasuna izan dezaten. Bestela, gizon edo emakume izatearen ondorioz, gauza batzuetarako balio izan eta beste batzuetarako balio ez izatea gertatzen da. Hala, beste sexuko pertsona baten beharra garatzen da, gure sexukoak ez diren gauzak egiteaz arduratuko dena («laranja erdiaren ustea»).
- f. Legitimitasunean eta errekonozimenduan oinarritutako harremanetan: orain arte *emakumezkoen gauzat* hartu direnei merezi duten legitimitasuna eta errekonozimendua aitortu behar zaie, eta ez bigarren mailakotzat hartu.

- g. Matxismo, sexismo eta misoginiarekiko tolerantziarik ezean: jarrera, jokabide edo adierazpen matxista, sexista zein misoginoekin bat egiten ez duena eta, gertatzen direnean, zuritzen ez dituen. Matxista, sexista, homofobia, misogino edo antzekoa den txiste, komentario, iragarki, jokabide edo antzekoren bat ikusi edo entzuten dugunean, agerian utzi eta salatu egin behar dugu.

Hemen ikusitakoa laburbilduz, esan dezakegu bi sexuek aukera, tratu, eskubide, betebeharrak, eskaera, itxaropen, ardura, kargu, baliabide, denbora, espazio eta beste berdina izan ditzaten sustatzen duen esku-hartze prozesu hezitzailea dela hezkidetzak. Horretarako, generoarekin zerikusia duten gaiak lantzeaz gainera, pertsonen artean berdintasunezko harreman adiskidetsuak sustatzen ditu, bazterketa, gehiegizko lehia eta antzekoak ekidinez. Halaber, elkartasun- eta begirune-ezagutzak, praktikak eta jarrerak balioesten ditu. Hala, hezkidetzak zerikusi estua du bigarren kapituluan aztertuko den bakerako hezkuntzarekin. Izan ere, haren zatitza hartu ohi da.

1.3. ARIKETAK

1.3.1. Ariketa: generoaren arabera itxaropenak

Hartu orri zuri bat eta idatzi alde batean zer espero duen gure jendarteak emakumeengandik. Hori egin ostean, buelta eman orriari eta idatzi zer espero duen gizonengandik. Ondoren, taldean zein bakarka hausnartu honako galdera hauen inguruan:

1. Aztertu genero bakoitzari esleitzen zaizkion itxaropenak eta haien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak.
2. Zure/zuen ustez, zergatik gertatzen dira ezberdintasunak?
3. Berdina al da emakumeek eta gizonen itxaropenak bete ditzaten jendarteak egiten duen presioa? Esaterako, egun gure jendarteak espero du gizonen eta emakumeek beren itxura fisikoa zaintzea. Baina berdina al da itxaropen hori bete dezaten jendarteak gizon eta emakumeengan egiten duen presioa?
4. Orain denboraren makina hartu eta XIX. mendeko Euskal Herrira joko dugu. Garai hartan genero bakoitzarentzat zeuden itxaropenak idatzi eta lehen egindako galderari erantzun. Hori ez ezik, egin ere honako hau:
5. Erkatu XIX. mendean gizon eta emakumezkoentzat zeuden itxaropenak gaur egun daudenekin eta aztertu haien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak.
6. Zergatik gertatzen dira ezberdintasunak?
7. Berdina al da XIX. eta XXI. mendeetako jendarteek egindako presioa emakume eta gizonen itxaropenak bete ditzaten?
8. Zergatik aldatu da presioa?

1.3.2. Ariketa: genero-estereotipoak

Deskriba ezazu zeure burua, honako galdera hauei erantzunez (Barbera, 2004tik egokitua):

1. Zein da zure itxura fisikoa?
2. Zein dira zure nortasun-ezaugarriak?
3. Zein dira zure ohiko jokabideak?
4. Zein dira zure interes eta zaletasun nagusiak?
5. Zein dira egin ohi dituzun jarduerak?
6. Zein dira egin ohi dituzun zereginak?

Galderei erantzun ostean, erkatu erantzunak egun gure jendartean gizon eta emakumei buruz dauden estereotipoekin (ikus 1.2. taula); aztertu zertan datozen bat estereotipo bakoitzarekin; aztertu zertan ez datozen bat; aztertu zein ez dauden jasota estereotipoetan.

1.3.3. Hausnartzeko ariketa

Zer egingo zenuke honako egoera hauetan egongo bazina?

- Lagunartean zaude eta zure lagun batek honako hau dio: «*Emakumeak ilea sobran eta garuna faltan*».
- Denda batean sartu zara ume batentzat opari bat erostera. Dendariarengana jo duzu aholku bila eta hark zera galdetu dizu: *Zer da, neska ala mutila?*
- Jatetxe batera joan zara lagunekin eta ardoa eskatu duzue. Sei neska eta mutil bakarra zarete eta zerbitzariak mutilari zerbitzatu dio ardoa dastatu eta oniritzia eman dezan.
- Zure lagun batek hiru alaba izan ditu eta honako hau entzun diozu haren senide bati: *Emakume honek alabak egiten daki bakarrik*.

1.3.4. Ariketa: ingurunea aztertzen

Behatu astebetetz zure inguruneari eta apuntatu koaderno batean ikusitako sexismoaren, matxismoaren, homofobiaren, transfobiaren edo misoginiaren adibideak, bai eta horiek ikustean sentitu duzuna ere. Gero hausnartu emaitzen inguruan, honako galdera hauei erantzuten saiatuz:

- Nola sentitu zinen hura gertatu zenean?
- Zer erreakzio izan zituzten gertakariaren lekukoek?
- Zerk motibatu zituen erreakzio horiek?

- Zer gertatu ohi da iraindutakoak emakumeak direnean? Zergatik?
- Zer gertatuko zen iraindutakoak gizonak izan balira? Zergatik?

1.3.5. Ariketa: egoera jakin batzuen azterketa

- Munduko herri batean emakumeek ez dute herriko festetako ekitaldi nagusian parte hartzerik. Horren aldekoek zera argudiatzen dute: «*Betidanik gizonezkoek bakarrik hartu izan dute parte ekitaldi horretan eta tradizioari eutsi egin behar zaio*». Egoera horretan, ba al dago indarkeria matxistarik? Argudiatu zure erantzuna. Baiezkoa erantzun baduzu, zer indarkeria matxista mota izango litzateke? Zergatik?
- Zure herriko elkarte batean emakumeek ez dute bazkide izaterik. Horren aldekoek zera argudiatzen dute: «*Betidanik gizonezkoak bakarrik izan dira elkarteko bazkide. Gainera, emakumeek giroa nahasten dute*». Egoera horretan, ba al dago indarkeria matxistarik? Arrazoitu zure erantzuna. Baiezkoa erantzun baduzu, zer indarkeria matxista mota izango litzateke? Zergatik?

1.4. BIBLIOGRAFIA

- Alacanteko Feminarioa (1987): *Elementos para una educación no sexista*, Victor Orensa, Valentzia.
- Ashmore, R.D. (1990): «Sex, gender and the individual», in L.A. Pervin (arg.), *Handbook of Personality: Theory and research*, Guilford Press, Nueva York, 486-526.
- Barbera, E. (2004): «Perspectiva cognitiva social: estereotipos y esquemas de género», in E. Barbera eta I. Martinez (koord.), *Psicología y género*, Pearson, Madril, 55-80.
- Bonino, L. (z.g.): *Micromachismos: la violencia invisible en la pareja*, <http://www.joaquimmontaner.net/Saco/dipity_mens/micromachismos_0.pdf>, [Kontsulta: 2014-IV].
- Cavanes, P. (2006): «Escritoras en la Edad Media», *Espéculo: Revista de Estudios Literarios*, **33**, <<http://www.ucm.es/info/especulo/numero33/escrimed.html>>, [Kontsulta: 2014-IV].
- Clack, B. (1999). *Misogyny in the Western Philosophical Tradition: A Reader*. Routledge, New York.
- Del Val Valdivieso, M.I. (2008): «Los espacios del trabajo femenino en la Castilla del siglo XV», *Studia Histórica*, **26**, 63-90.
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentzia (FRA) (2014): *Violencia de género contra las mujeres: una encuesta a escala de la UE*, <http://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-factsheet_es.pdf>, [Kontsulta: 2014-III].

- Eusko Jaurlaritza (2013): *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Glick, P. eta Fiske, S. (1996): «The Ambivalent Sexism Inventory: Differentiating hostile and benevolent sexism», *Journal of Personality and Social Psychology*, **70(3)**, 491-512.
- Guizot, F. eta Guizot, P. (1907): *Abelardo y Eloísa: Estudio histórico*. González Blancoren itzulpena, La España Moderna, Madril.
- Gonzalez, A. eta Lomas, C. (koord.) (2002): *Mujer y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia*, Graó, Bartzelona.
- Harluxet Fundazioa (1995): *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia.
- Lera, M.J. (2002): *El fútbol y las casitas*, Guadalmena, Alcalá de Guadaira.
- Martinez Ten, L. eta Alberdi, I. (1988): *Guía didáctica para una orientación no sexista*, Ministerio de Educación y Ciencia, Madril.
- Monasterio, M.; Gonzalez, S. eta García, A. (2011): *La coeducación en la escuela del siglo XXI*, Catarata, Madril.
- Puleo, A. (2005): «El patriarcado: ¿una organización social superada?», *Temas para el debate*, **133**, 39-42.
- Reizabal, L. (2007): «Generoari buruzko ezagutzaren garapena», in L. Reizabal (arg.), *Gizarte-ezagutzaren garapena nerabazarora arte*, UEU, Bilbo, 369-387.
- Reizabal L.; Sadaba, K. eta Gonzalez, D. (2007): «Bakearen eta gerraren inguruko ikusmoldeen garapena», in L. Reizabal (arg.), *Gizarte-ezagutzaren garapena nerabazarora arte*, UEU, Bilbo, 349-367.
- Reizabal, L. eta Lizaso, I. (2001): *Garapen psikologikoa helduaroan eta zahartzaroan*, UEU, Bilbo.
- Simon, M.E. (2003): *Coeducación y cultura de paz: educar para la convivencia desde la igualdad*, <http://ulises.cepgranada.org/moodle/pluginfile.php/45575/mod_resource/content/1/Elena%20Simon%20Coeducacion%20y%20cultura%20de%20paz.pdf>, [Kontsulta: 2014-III].
- , (2009): *Hijas de la igualdad, herederas de injusticias*, Narcea, Madril.
- , (2010): *La igualdad también se aprende: cuestión de coeducación*, Narcea, Madril.

